

IKASLEEN TXOKOA 108. ZENBAKIA

# Hernani BHI

**DBH 3-4****Egileak:**

*Nahia Goikoetxea Urreaga, Hize Andueza Zubimendi, Saioa Apaolaza Gorostizu,  
Malen Urkizu Arrozpide eta Nahia Juha Beraza*



# Artasoroa

1795. urteko Euskal Herriko herri batean; Gabirian, bazen emakume bat bertako baserri batean bizi zena; Iñaxi.

Baserrria berea zen; anaia hil zitzaionez, bera geratu zen baserriaren oinordeko. Bertan bere senarra eta bi seme-alaba bixki-rekin bizi zen.

Seme alabek hamar urte zituzten Maria eta Joanes izenekoak. Maria bakartia, ixila, baina oso azkarra zen, bere anaia berriz ausarta, abenturazalea eta jakin nahi handikoa. Antonio, Iñaxiren senarra, merkataria zenez, ez zuen denbora asko etxean pasatzen. Goizeko seitan abiatu eta gaueko oso ordu txikitetan bueltatzen zen. Iñaxik txikitetan ikasketak jaso zituen idazten eta irakurtzen erraz moldatzen zen, txikitatik gustatu izan zitzaion ikastea, gauza berriak deskubritzea eta jendeari irakastea, orduan bere seme-alabei txikitatik berak zekien ahalik eta guztia irakasten zien. Garai hartako emakume asko bizi ziren moduan, baserriko lanetan geratu zen eta umeak hazten zituen. Gauero-gauero bere umei baserriak gordetako kondairak kontatzen zizkien. Kuaderno handi eta lodi batean bilduta zituen Gabiria herriko kondaira guztiak. Kuaderno hori heldua izatean Mariak edo Joanesek jasoko zuen.

Horieta gau ilun eta euritsu batean, Iñaxi kondaira bat hasi zen kontatzen. Logelako atea itxita zegoen baina hala ere entzun zitekeen nola jotzen zuen haizeak horma zaharkituen kontra. Iñaxi horrela hasi zen: "Bazen behin, Aretxederra baserrian 16 urteko gazte bat altxor bat aurkitu zuena baina gorde beharrean dena galdu zuena bere lagunekin musean apustuak eginez. Urte batzuen ostean, bere familia lanik gabe eta diru gutxirekin geratu ziren. Orduan baserria saldu behar izan zuten eta kalegorrian geratu ziren".

Amak hori kontatu ondoren bere seme-alabei, azaldu zien nolakoa zen jendea, gorde beharrean dirua behar zutenerako, gastatzen zutenak. Bestalde amak azaldu zien gazteak aurkitutako altxorra bazitekeela dirua ez izatea, balio handikoa zerbait akaso. Mariak ez zuen jaramon handirik egin emakumeak esandakoari baina bestalde, Joanes ez zen besoak gurutzatuta geratu. Galdera bat bota zion amari:

-Ama, kondaira hau benetan gertatu zen?-galdetu zion Joanesek amari erantzuna zein izan go zen jakiteko esperoan.

-Baliteke seme, baina bada-

kizu, ez sinetsi kondaira guztiak egia esaten dutenik, agian batzuk benetan gertatutakoak izan daitezke; beste batzuk berriz, asmatutakoak izatea eta azkenik, kondaira batzuk zerbait aldatuta izatea-Iñaxik erantzun zion ez arduratzeko keinua eginez.

Hurrengo goizean, egunero bezala, Maria eta Joanes behiak jeitxi ondoren, Tomaxen baserri-ra joan ziren mutilaren aitona esnea saltzeko asmoz. Tomax, Joanesen eta Mariaren txikitako laguna zen. Beti hartu izan ohi zuen neskak beste anai bat izango balitz bezala eta alderantziz ere. Hirurak batera ibiltzen ziren beti elkarrekin jolasten. Gazte hura mutil ireki eta bihurri xamarra zen, gazteago zela ardien gainean jartzen zen, ardia zaldi bat izango balitz bezala.

Udaberriko lore usain goxoak usaintzen zituzten bitartean, Joanesek hartu zuen lehen hitza, atzo gauean amak kontatutako kondaira kontatuz Tomaxeri. Gehitu zuen ez zuela guztiz sinisten istorio osoa; zerbait ezkutatzen zuela iruditzen zitzaion. Arrebak berriz entzundakoan anaia bezala pentsatzen hasi zen, baita laguna ere eta horrela jarraitu zuen konbertsazioak:

-Eta herriko baserri-baserri joaten bagara aitona-amonei komentatuz ea istorioa ezagutzen duten?-Proposatuz zuten Tomaxek Maria begiratzuz.

-Bai, eta horrela agian informazio gehiago lortu dezakegu-Gehitu zuen neskak.

Arratsaldean Tomaxek bi anai-arrebei beraren baserri-ra gonbidatu zituen, bazkaldu ostean berehala ikerketarekin hasteko.

Lehen geldialdia Bidaurreta baserrian izan zen. Bertan bi heldu bizi ziren. Umeak bertara joan ziren kondaira kontatzeko asmoz. Heldu haiek besoak zabalik hartu zituzten eta beraien sukaldara meriendatzera gonbidatu zituzten. Joanesek kondaira kontatu ondoren bi helduek ez zutela ezagutzen aipatu zituen.

Bigarren geldialdia Iturriaga baserrian izan zen. Bertan bi adineko bizi ziren. Lehen txakur bat izan zuten, Kaxkur izenekoa. Iaz, akzidentez, traktore batek txakurra zapaldu eta bere bizitzarekin amaitu zuen. Gainera emakumea gaixotasun bat zuen eta gauza askoz ez zen gogoratzen, orduan batzuetan frustratu egiten zen bere buruarekin, eskerrak bere sena-



rra ondoan zuela. Tomaxen aitak komentatu zion hori guztia baina hala ere bixitan joatea erabaki zuten hirukoteak. Bertan zeudela emakumeak gaila eta tea prestatu zituen hiruentzat nahiz eta lehenago iada meriendatuta zeuden. Lagunak asko eskertu zuten emandakoa eta kondaira kontatzen hasi ziren. Momentuan emakumea negarrez hasi zen eta gizonak etxetik alde egiteko ohiukatu zuen. Umeak korrika hasi eta zuhaitzez inguratutako baso batean amaitu zuten.

Iluntasuna eta hodeiak hurbiltzen hasi ziren eta euria hasiko zuela ematen zuen. Orduan etxera bueltatzea erabaki zuten. Gauean, Mariak buruari bueltak ematen hasi zen atsaldetan gertatutakoaz jabetuz. Hurrengo goiza igandea zenez, mezetarra joan ondoren, bi mutilei ezer esan gabe adineko horiengana berriz joatea erabaki zuen barkamen zintzo batekin, etxean zituen oiloak egin berri zituen arrautza kaxa batekin.

Bertan zegoela bi senar-emazteak berari ere barkamen bat eta esplikazio zentzudun bat jakitea merezi zuela esan zioten.

-Barkatu atzo ohiukatzeagatik eta horrela etxetik bidaltzeagatik. Nire emaztea ez dago momentu onetan eta horrela erreazionatu genuen, asko sentitzen dugu. Nahi baduzu nik dakidan moduan kontatuko dizut kondaira-komentatu zion gizonak nekari eskua sorbaldan jarriz.

Mariak buruarekin baietz keinua egin zion.

-Duela urte asko, Aretxederra baserrian 16 urteko gazte batek altxor bat aurkitu zuen, ez dakit bertan zer zegoen baina nire logelan gordeta daukat duela 20 urteko mapa bat, nahibaduz erakutsiko dizut.

Logelan zeuden bitartean, emakumea arropa josten eta bazkaltzeko zer prestatuko zuen pentsatu zuen.

Biak logelan zeudela, gizonak ohearen azpian zegoen kaxa txuri eta zaharkitua hartu zuen. Ondo ezkutatuta zuen, manta edo bestelako gauzeekin bilduta. Bertan gizonak aipatutako mapa zegoen, Aretxederra eta bi mutiko horiek bizi ziren baserriaren arteko distantzia kolore gorri markatuta zegoen eta erdibidean "X" bat. Ho-

rra jarraitu zuten hizketan:

-Utziko zenidake mapa etxera eramaten, mesedez?-Erreguka hasi zitzaion gizonari.

-Zer uste duzu ume, mapa hau etxetik etxera hain airez eraman dezakezula?-Erantzun zion harro gizonak.

-Zin egiten dizut bihar goizeko edozein ordutan ekarriko dizudala, ezer hautsi gabe-begiratu zion Mariak txakur kume abandonatu batek jartzen duen aurpegi berbera jarriz. Nahiz eta neska ixila izan askotan berearekin ateratzen zen.

-Beno, bihar 08:00tan Gabiria-ko plazan elkartuko gara. Tori kaxa ere, baliagarri egingo zaizu. Baina ireki ezazu etxean, zu bakarrik zaudela.-Begiratu zion umeari irrifar bat ahotik ateratzeko moduan.

-Ados, bihar ikusko gara elkar, zaindu ondo zure emaztea. Bihar arte-biak besarkatu eta Maria etxera bueltatu zen.

Iada atsaldeta zen eta neskatxa geratua zen bere anaia eta Tomaxekin frontoian. Hirurak batera zuedela bi mutilek konturatu ziren Mariak kaxa bat eta paper zahar bat zekarrela eskuetan. Gertatutakoa azaldu zion bi mutilei eta kaxa ireki zuten. Bertan giltz bat eta amodiozko esaldi bat azaltzen zen: "ni berriz ikusi nahi banauzu lehenik altxorra bilatu beharko duzu". Hiru neska-mutilek berehala mapa begiratzen hasi ziren eta harrirituta geratu ziren zein baserri ziren borobildutakoak eta bien artean "X" hizkiz markatutako toki bat azaltzen zelako. Orduan erabaki zuten ixa markatutako lekura joatea.

Bertan artasoro bat aurkitu zuten, baina ez zuten ezer arrarorik somatu. Pentsakor geratu ziren hirurak eta etxera bueltatzea erabaki zuten. Bidean mendi aldapak igoz eguzkiak artasoroa geroz eta indar handiagoz argitzen zuela ikusi zuten eta puntu batean itzala zegoela. Oso deigarria iruditu zitzaion itzala, ez baizegoen zuhaitzik, ez lainorik itzal hori sortuko zuenik. Orduan bi anai-arreben baserri-ra joan ziren atxur batzuen bila. Azkar ibili behar zuten eguzkia sartu aurretik.

Iritsi zirenean ez zuten itzalik ikusi baina bai eguzkia. Orduan Maria korrika hasi zen maldara

iristeko ahalik eta azkarren. Han zegoela itzala ikusi zuen. Orduan bi mutilei ohiuka hasi zitzaion esanez non egin behar zuten zuloa. Nekagarria egin zitzaion zuloa egitea baina azkenean lortu zuten. Bertan beste kutxa bat aurkitu zuten, kate batez lotuta. Joanes gogoratu zen Mariak ekarritako kaxan bertan zegoen giltza balitekeela baliagarria izatea. Kutxa iriki zutenean bertan beste mezu bat irakurri zuten: "gaueko 12tako kanpaikadak jotzean, azkeneko kanpaikada ematean ilargiak isladatzen duen argiak esango du non nagoen".

Bi anai-arrebek bere etxera gonbidatu zuten Tomax, bai afaltzera eta lotara. Hiruen gurusoak ez ziren harritzen lotara joatea, txikitatik horrela ibili izan zirelako. Gauean hamaikak alde- ra, erabaki zuten iada plazara joatea. Bertan itxoin zuten hamabiak jo arte. Ordua iristean, kanpaikadak hastean, eskutik helduta zeuden zer gertatuko zenaren esperoan. Denak amaitzean, ilargiak plazan aspaldi erabiltzen ez zen harrizko urputzua argitu zuen. Bertara joan ziren eta putzuak zuten sokari tira egin zioten. Indar handiz azkenean lortu zuten zerbait ateratzea. Kubo bat zen eta bertan urrezko bitxi ugari azaldu ziren.

Bakoitza bere etxera joan ziren eta gero Maria eta Joanesen etxean geratu ziren hitz egiten bi familiak. Umeak kontatu zion gertatutako guztia. Gurusoak oso harro zeuden beraien seme-alabataz eta denen artean herritar guztiak biltzea erabaki zuten hurrengo atsaldetan Gabiriako frontoian.

Hurrengo eguneko goizeko zortziak azkar eman zuten eta hirurak plazara joan ziren. Gizona banku batean zegoen Maria-ri itxoiten, baina harrirituta geratu zen hirurak azaldu zirenean: -Zer egiten duzue zuek hirurak hemen? Maria, ez esan zure laguntxoei kontatu diozula guztia?-Esan zuten gizonak haserre aurpegiarekin. Mariak buruarekin baietz esan zion hitzegiten jarraitzen zuten bitartean.

-Baina sorpresatxo batekin gatorkizu-Erantzun zuten bitxi gutxi batzuekin eskuetan. Gizona negarrez hasi zen eskerrak emanez, eta bitxi horiekien lortutako dirua ez zuela alferrik gastatuko zin egin zuten.

Atsaldetan herritar guztiak bildu ziren frontoian eta umeak hartu zuten hitza. Gertatutakoa kontatu eta beraiekin altxorra banatzea erabaki zutela azaldu zuten. Han zeuden guztiak pozik eta saltoka hasi ziren, eskerrak emanez. Handik aurrera ez zuten goserik berriz pasa Gabiriako herritarrek.

*Egilea: Malen Urkizu Arrozpide*



# Banila

Beste gizaki batzuk sartu ziren dendara. Hauek eguneko laugarrenak ziren. Bikote bat, emakume ilegorri eta gizon altu batez osatua. Baina hauek desberdinak ziren, haien begietan ikusi zitekeen hori, egiten zuten distirari. Nire kaiolara gerturatu aurretik ohartu nintzen horretaz.

—Begira nola mugitzen duen isatsa! —esan zuen emakumeak.

—Esan daiteke zuek txakurra aukeratu beharrean, berak zuek aukeratu zaituztela —erantzun azken hilabete haieran txakurtegiari ni zaintzen egon zen andreak.

Pertsona asko pasatzen ziren dendatik eta asko gelditzen ziren nire kaiolaren parean, baina hau nire lehen aldia zen familia batengatik aukeratua izaten.

Astebete beranduago nire etxe berria izango zenaren atariraino eramanez ninduten uhaletik eutsita. Normalean ez nintzen kalera ateratzen txakurtegiari

egon nintzen denboraldian; beraz, oraindik ohitzen ari nintzen.

Orduan ikusi nuen lehen aldiz, nire etxea. Edozer gertatuta ere beti itzuli ahal izango nuen lekua.

Nire jabe berriek egunero hiru aldiz ateratzen ninduten kalera paseatzera. Asteburuetan, berriz, medira joaten ginen. Nire denborapasa gustukoena menditik tximeletak jarraitzea bihurtu zen, ordurako, haiekin harrapaketa jolastea. Maitatua nintzen.

Nire familiarekin urtea betetzera nindoanean, “ama” apur bat txuri ikusten hasi nintzen. Egunero oka egiten zuen, behin baino gehiagotan. Arduratzen hasi nintzen unean gelditu egin zen. Orain, oka egiteari utzi zionean, sabel handi bat zeukan. Egunetik egunera handiagoa. Txakurtegiari nengoenen emeren bat ikusi izan nuen sabel handiarekin eta banekien horrek txakur txikiak zituela esan nahi zuela. Oso gustura nengoen txakurtxo gehiago izango ginelako etxean.

Irrikitari nengoen ea txakurtxoak noiz jaioko, baina bitartean nire “ama”ren sabel

inguruan etzaten nintzen beti. Barruko txakurtxoek noizean behin ostikoren bat ematen zuten eta nik sentitu egiten nituen.

Gau batean nire “amak” gainean egin zuen txiza, izugarri. Nire “aita”-k zorro bat hartu eta kotxera eramanez, “ama” ere kotxe berean zegoelarik. Azken laztan bat eman zidan eta joan egin ziren.

(...)

Atea ireki zen halako batean eta korrika joan nintzen txakurtxo berriak ezagutzeko irrikitan: Baina nire sorpresa-rako, ez zeuden txakurtxo asko, hobeto esanda, ez zegoen txakurtxorik. Horren ordez, gizaki txikitxo bat zegoen, silita batean etzanda. “Ama”ren ile gorria eta “aita”ren begi urdinak zituen. Irribarre bat oparitu zidan. Ordoren, iletik tira egin zidan eta nahiz eta gustatu ez izan, ezinezkoa zen horrelako gizaki hain txikiarekin haserretzea.

Hurrengo urteak seaskaren ondoan gauak igarotzen, kolunpioak bultzatzen, jolasten, dantzatzen eta disfrutatzen pasa nituen, gizaki txiki horren ondoan. Hala ere, iada ez zen hain txikia.

Azkarregi pasa zen denbora eta konturatzerako gizaki txikia nire “ama”ren alturaraino iritsi zen. Iada ez zuen hainbeste jolasten, orain kuaderno koloretsuetan “etxekolan” deitzen omen diren gizakien gauza horiek egiten egoten zen. Egia esan ez zidan inbidiarik ematen. Egunean behin gizaki txikiak kalera ateratzen ninduen, beste behin nire “ama”k eta azkeneko nire “aita”k. Nire bizitza ezinhobearen.

Denborarekin ni ere korri gutxiago egiten hasi nintzen, iada ez neukan hainbeste energia tximeletei jarraitzeko eta nire ilea kolorea galtzen hasi zen. Zaharra nintzen ordurako. Nire familiak medikuarengana eramanez ninduen. Medikuek, ulertu ezin nuen zerbait esaten zuten bitartean gizaki txikia negarrez hasi zen.

Hilabete batzuk beranduago ez nuen altxatzeko ere indarrik. Iada ezin nuen ez dantzatu ez jolastu. Beste behin mediku horrengana eramanez ninduten. Nire familiak besarkada luze bat eman zidan. Banekiek hau zela amaiera. Ez nengoen triste, ezin bainaiz zorionsuago egon bizi



izan dudana guztiarekin. Badakit nire familiak aurrera jarraitzea lortuko duela, ni gogoan nauten bitartean. Bukatu da nire ibilbidea beraiekin. Azken batean, txakur bat besterik ez naiz.

—Maite zaitugu, Banila.— esan zuen gizaki txikiak, nik azken aldiz begiak itxi aurretik.

*Egilea: Nahia Goikoetxea Urreaga*

# Hemendik urrun

Nola da posible dena hain azkar aldatzea? Atzo korrika jolasten nengibilen nire lagunekin, eta gaur ama negarrez, erabat deskontsolatuta aurkitu dut etxeko atarian.

Aitonak abixatu zidan, duela aste gutxi batzuk, orain aspaldikoak ematen duten horietako batean, gerra geroz eta gertuago zegoela. Agian horregatik joan zen aita etxetik. Ikastolan entzun dut beste umeen aita eta anai zaharrak ere joan direla, “gerran laguntzeko edo horrelako zerbait” esan dit andereño Mirenek. Nik abisuei kasu askorik egin gabe korrika jarraitu nuen, dantzan, hegan, aske.

Egia esan bihotza apurtu zait

gaur, goiz ilunean barrena, sirenen hotsak entzun ditudanean. Pelikuletakoak bezalakoak ziren, herrialde oso bat izutzeko gai diren horietakoak. Azkar batean jaiki naiz ohetik, zer gertatzen zen jakin gabe (akaso ametsetan jarraitzen nuen) eta bertan ikusi dut ama bere ilargi urdinez betetako pijamarekin.

Gelan sartzeko esan dit. Hartu ahal nituen gauza guztiak hartu eta nire ikastolako motxilan sartzeko. Bi aldiz pentsatu gabe korrika atera naiz, eta emandako aginduak bete ditut. Ez dakit oso ondo zer den gertatzen ari dena, baina ama horrela ikusita, ezer onik ez, seguru.

Bidaia batera goazen gal-

detu diot, brometan, betidanik bidaiak egitea nire ametsetako bat izan baita. Baina nire gurasoek ez dabilta diruz oso ondo, eta ez naiz inoiz nire herritik atera. Nire gurasoek pentsatzen dute nik ez dakidala azken honi buruzko ezer. Txikia naiz, ez tuntu, ordea. Hala ere, askotan amets egiten dut beste paisaia batzuekin: Txinako tenpluekin, Brasileko kosta handi eta ederrekin...

Nire amak irribarre txiki eta forzatu batekin erantzun dit, buruarekin motor gainera igotzeko adierazten zidan mugimendu bat eginez. Gure motxilak motorraren eserleku barruan jarri eta errepidean barrena abiatu gara. Badakit arrisurtsua dela egiten ari garena, nahiz eta amak bere beldur aurpegia oso ondo disimulatu. Nire ama oso emakume indartsua da, hori argi dago.

Eraikin guztien leihoak itxita daude, kalean ez dabil kotxerik; gu bezala bertatik ateratzeko ahaleginetan dauden batzuenak bakarrik. Sirena hotsak entzuten dira, jendearen garrasiak. Bihotza 5 segunduz eten didan irudi bat ikusi dut zeruan: 4 abioneta txiki daude, burrunba izugarria ateratzen dutenak, hau beldurra! Eta orduan, nire gorputzari erreakzionatzeko denbora eman baino lehen, granada bat lehertu da gure ondoan.

Munduko beste puntatik ere

entzungo zen eztanda horrek “piiiiii” soinua bakarrik utzi du nire belarrietan eta ama motorretik erortzen eta niri garrasi egiten ikusi nauen unean, konturatu naiz hori izango dela ikusiko dudana azkena. Beraz,

nire gorputza kiskaltzen ari zela sentitu eta nire bihotzaren azken taupadak nabaritzen ditudan bitartean, mantso mantso, begiak itxi ditut.

*Egilea: Hize Andueza Zubimendi*





# Kontuz gertatu daitekeenarekin

Bazen behin ezerezaren erdian kokatutako herri txiki bat, Villanova izenekoa. Leku lasai horretan, biztanleen bizimodua traba handirik gabe igarotzen zen, gailu elektronikoak iristean bizimodua guztiz aldatu zuten arte. Hasieran, internet eta telefono mugikorrek erabiltzea benizio bat izan zen Villanovako bizilagunentzat. Komunikazioa azkarragoa eta eraginkorragoa izan zen, ekitaldiak antolatzea eta urrutiko senide eta lagunekin harremanetan jartzea erraztuz. Gainera, informazioa denbora errealean lortzeko aukerari esker, munduko gertakarietara sartzeko eta ezagutzak arlo ezberdinetan zabaltzeko aukera izan zuten.

Hala ere, gauza guztietan bezala, bazegoen alde ezkutatu bat. Villanovako bitanleak mundu birtualean murgildu ahala, uni- bertso berri honek zekartzan arriskuak deskubritzen hasi ziren. Haur eta nerabeek orduak igarotzen zituzten sare soziale-

tan, bideo jokoetan, euren ardurak akademiko eta sozialak alde batera utzita.

Bizitza birtualaren isolamendua agerian geratu zen lehen parke eta kafetegietan elkartzen eta berriketan aritzen zen jendeak pantaila baten aurrean etxean geratu nahiago izan zue- nean. Aurrez aurre elkarrekin- tza eza arazo larri bihurtu zen komunitatearentzat, bertako biztanleen artean distantzia eta bakardadea sentsazioa sortuz.


Egoera muturrera iritsi zen hacker talde batek Villanovaren interneteko sarea legez kanpoko jarduerak egiteko erabiltzea erabaki zuenean. Horrek biztanle guztien identitatea eta segurtasuna arriskuan jarri zituen, ziurgabetasun eta mesfidantza giroa sortuz.

Azkenik, jasaten zuten egoera larriaren aurrean, Villanovako buruzagiek neurri zorrotak hartzea erabaki zuten. Gailu elektronikoen erabilera egokiari buruz-

ko sentsibilizazio politikak ezarri zituzten eta bizitza birtuala eta bizitza erreala orekatzearen garrantzia sustatu zuten.

Ikastetxeetan hezkuntza kanpainak egin ziren eta kanpoko jarduerak bultzatu ziren. Horrez gain, elkartzeko guneak sortu ziren, non bizilagunak sozializatzeko eta pantailetatik haratago esperientziak partekatzeko aukerak eskaintzen ziren. Villanovaren istorioa eta gailu elektronikoen erabilera arrisku- tsuaren esnatzeak adibide gisa balio izan zuen antzeko erronkei aurre egiten dieten beste komu- nitate batzuentzat. Teknologia, kontzienteki eta neurritz erabiltzen bada, bizitza hobetzeko tresna indartsua izan daitekeela ikasi zuten, baina erabilera oke- rra eginez gero, bi ahoko ezpata bihur daitekeela.

*Egilea: Nahia Juha Beraza*



## Tximeletak


Txikia nintzela, udarako oporretan Salouko kanpin batera joateko ohitura genuen furgonetarekin.

Bertan, hondartzan eta pistinan pasatzen genuen egun osoa eta bizikletan ere ibiltzen ginen. Aste bat Mediterraneoan eta beste aste bat Pirinioetako kanpin batean. Gogoan dut nola ibil-

tzen ginen hondartza ixkinako kontxa, karakola, kristal edo harriak biltzen, bai eta errekan zapaburuak eskuekin harrapatzen saiatzen ere.

Ekaitzaren ondorengo egu- nean, hondartza kontxaz beteta egoten zen. Batzuetan, barruan oraindik karakola zeukaten maskorrak aurkitzen nituen, eta haiek berriz itsasora bota eta buru belarri jarraitzen nuen nire harrapaketarekin. Ontzia betetakoan, aukeraketa egin behar izaten nuen, ez baitzidaten denak furgonetan gordetzen uzten; hori bai zela lan zaila bost urteko ume batentzat! Gogoan dut baita ere, nola haserretzen nintzen nire ahizpak hondarrezko gazteluak puskatzen zituenean; zirudienez, nahiago nuen itsasoak eramatea berak puskatzea baino.. Ondoren, ontziak garbitzeko iturrian garbitzen nuen kontxa bakoitza banan banan eta gero eguzkitan lehortzen utzi

Oroitzen dut, belar luzeek



eskua pasatzean behatzetan uzten zuten zirrara setsazioa, nola hazten ziren milaka koloretako loreak belardian eta nola ibiltzen ziren tximeletak inguruan hegaka, libre. Nola joaten zen mendi gailurretako ur gardena errekan behera eta harekin batera zubitik botatzen nuen makila; Nora joango da? Ez dakit, baina badakit ez dela berriz hemendik pasako, dakidan be-

zala karakolak itsas bazterrean geratuko direla inork bueltan itsasora jaurtitzen ez baditu, eta loreak ez direla tximeletak bezala hegan aske ibiliko. Baina denek dirudite pozik, denek alaitzen dute ingurua nahiz eta urrutikoa ikusten ez duten. Orduan, zergatik gabiltza hara eta hona tximeleten antzera hegan zoriontasunaren bila lore bat- tek bere buruarekin nahikoa

duenean? Guk geure burua ikusi beharrean, errekarra joaten gara, kontxak eta loreak biltzen ditugu, zapaburuak harrapatu... Ez al dakigu zoriontasuna erre- kako urek bueltatzen diguten islan ikusten? Ez, jakina ezetz. Loreei kasu egiten hasi beharko ginatke tximeleta hainbeste goraiatu beharrean.

*Egilea: Saioa Apaolaza Gorostizu*

